

23.-TESEO TA MINOTAURO (GREZIA-KRETA)

Atenas'eko Epeo erregearen semea zan Teseo. Aitak bildur aundia eukan bere semeari arerioak oker aundiren bat ez ete eutsoen egingo. Badaezpadan aitagiñe-rrabearen lurraldera bialdu eban Etra bere amagaz. Orrelan aiti-taren jauregian azi zan mutilla Trezena'n.

Gizon gazte egin zanean basora eroan eban eta an arri aundi bat erakutsi eutsoen eta amak esan eutson:

-Ara, seme: Arri ori ortik kendu eta orren atzean dagoana jasoten ba'dok, itzuli einteke aitagana eta aren ordeko izan.

Sekulako indarraz eldu eutson Teseo'k arriari eta apurka-apurka kendu eban bere tokitik eta arriaren atzean aitak gordetako ezpatea ta oiñetakoak aurkitu ebazan eta ezpata ta oiñetako orreikaz birtu zan Atenas'era.

Aitagana aurkeztu zan eta onek poz audiaz artu eban bere semea, batez bere oiñetakoak eta ezpatea ikusi ebazanean, erriaren aurrean aurkeztu eban bere oiñordeko lez.

Laster izan eban Teseo'k bere nortasuna agertzeko aukerea: Atenas'ko erregeak urtero bialdu bear izaten eutsozan zazpi mutil gazte eta zazpi neskatilla Minos'ko erregeari, onek Minotauro mamu zarra'ri janari lez eskintzeko.

Mamu gaizto ori oso bildurgarria zan: Gizon-burua eta zezen-gorputza eukazan eta uri aretako gazte-jendea janaz bizi zan. Sumendi baten gordeten zan eta alde guztietara koba-zulo eta pasadizu estuz beteta egoan toki ori eta oso gatxa zan andik urtetea, bertako barriak ondo ekizagan lagunen bat izan ezik.

Teseo gazte kementsuak lagundu eutsen oraingo onetan mamu orren janari izendatutako gazte errukarriai eta ontzira joan zanean aitari esan eutson onez itzultzen



ba'zan ontziaren oial baltzak kendu eta zuriak ipiñiko ebazala.

Kreta'ra eldu zira-nean, sumendiaren atera eroan ebazan gazte errukarriak eta euren artean Teseo kementsua. Ariadna Minos'en alabeagaz maitemindu zan Teseo eta onek ezpata bat eta ari-mataza bat emon eutsozan..

Urrengo goi-zean etorri jaken mamutzarra eta Teseo'ri eraso egin eutson. Onek, osterarikatu barik itxaron eutson ezpatea aidean eukala eta mamuak, adarrakaz erasoteko, burua makurtu ebanean bizkarretik sartu eutson espatea biotzeraiño eta an jausi zan ilda ankaz gora mamu gaiztoa.

Errez atera ebazan guztiak sumendi aretatik, Ariadna'k emon eutson ari-matasaz baliatuta. Barrura sartzeko orduan aria askatzen joan zan eta mamutzarra il ondoren aria barriri batzea zan naikoa bidea aurkitzeko.

Minos'ko bizi-lagunen zorionak eta txaloak entzuten ontziratu ziran barriri Atenas'eko urira eltzeko.

Baiña pozaren pozez aitzu egin jakon aitari esandakoa, ez ebazan oial baltzak kendu eta zuriak ipiñi. Urira urreratzen joiazala, tontor baten egoan Epeo erregea itxasora begira, noiz ikusiko bere seme Teseo'k gazte arekaz ontzia Minos urira eroaten, eta bertaratu zanean oial baltzakaz etorrela ikusi eban eta saminduta bere burua itxasora bota eban eta an ito zan.

Naigabe aundiz artu bear izan eban Teseo'k bere aitaren erregetza.

OLAZAR'tar Martin'ek.